

DIRU ITURRIAK

Behin gure proposamena, bezero potentzialak eta gurekin lan egingo duten elkarteak ezagutu ditugula, proiektua aurrera eramateko beharrezkoa den dirua nondik aterako dugun zehaztuko dugu.

Proiektuaren fabrikazioa nahiko konplexua izango da, behar ditugun piezak eta muntatzeko makineria oso desberdina baita, beraz, aurreko atalean azaldu dugun moduan, **azpikontratazioa erabiliko dugu** ekoizpen prozesua aurrera eraman ahal izateko.

Hau ikusita, **gastu guztien aurreikuspena 28.518,6128€-koa** da (lehenengo hilabetekoa), eta horregatik haien subentzio aukera aztertu ditugu behar dugun diru kantitatea lortzeko.

Hurrengo subentzio programetara aurkeztuko dugu proiektua aukera gehiago izateko:

Bizkaiko Foru Aldundia: Enpresa-proiektu berritzaileen garapena

Subentzio programa hau zuzenduta dago **ingurune sozialean lagunduko duen proiektu edo zerbitzu bat** ekoiztu nahi duten enpresa berri bizkaitarrei. Diru-laguntza hau subentzionatzen dituen arlo zehatzak dira gizarte-arloko enpresa-proiektu berritzaileak garatzea, definitzea eta abian jartzea. Diru-laguntza emateko hainbat ezaugarri hartuko dira kontuan: **Bideragarritasunari** eta merkatuari buruzko **azterlanak; txosten eta azterlan tekniko espezifikoak; garapena**, ezaugarriak eta oinarriko funtzionaltasunak; merkaturatze-gastuak; bidaiak eta azoketara joatea; jabetza intelektualaren edo industrialaren babesa, erregistroak, ziurtagiriak eta homologazioak; enpresa edo gizarte-erakunde berritzaile berrientzako eratze-gastuak; proiektua garatzeko kanpo-aholkularitza; proiektura bideratutako langileen barne-gastuak; gizarte-inpaktua neurtzeko datuak biltzeko aholkularitza; proiektua garatzeko beste kontzeptu batzuk, beharrezkotzat jotzen direnean.

Egin beharko tramite guztiak Bizkaiko Foru Aldundiaren bitartez (fisikoki) egin daiteke baita Interneten bitartez.

Eskaintzen dituzten diru-laguntzen kantitate **maximoa 40.000€-koa** da.

https://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=11297&idioma=CA&dpto_biz=8&codpath_biz=8|9755|9760|11297

Imerso (Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutua): Adinekoen arretaren arloan ematen dituen diru-laguntzen erregimen orokorraren mendeko diru-laguntzak

Imerso Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileetako bat da, eta Gizarte Segurantzako Sistemaren prestazioen, baliaezintasuneko pentsioen eta erretiroko pentsioen gizarte-zerbitzu osagarrien kudeaketaz arduratzen da. Eskatzaileentzako hitzaldiak eta bidaiak bezalako jardueraz gain, **diru-laguntzen programa** bat badu ere. Aurkezten dituen hainbat diru-laguntza aukera motetatik, gure produktuari hobeto egokitzen dena “Imersok adinekoen arretaren arloan ematen dituen diru-laguntzen erregimen orokorraren mendeko diru-laguntzak” da.

Diru-laguntza hauen **helburua adinekoen arloko elkarre-mugimenduekin lankidetzan aritzeko jarduerak egitea da**, helburuak betetzeko beharrezkoak diren oinarriko baliabideak eskura izatea erraztuz, hala nola adinekoen estatuan ezartzen diren erakundeen ohiko jarduerak, funtzionamendua eta mantentze-lanak. Gure proiektua ezaugarri hauek betetzen ditu, **adin digitalean adinekoak modu independentean sartzen saiatuz.**

Diru-laguntza hori lortzeko, elektronikoki eskatu behar da parte hartzea, prozedura honen xehetasunetik deskarga daitezkeen eskaera-formularioak aldeztu aurretik betez. Dokumentua deskargatu ondoren, proiektuko parte-hartzaileen eta iradokitako ideien informazioarekin soilik bete beharko da. Proiektua onartzen bada, Imserso posta elektronikoz jarriko da harremanetan, eta diru-laguntzaren parametroak zehaztuko dira. Gehienez, 170.000 €-ko diru-laguntza eskainiko dute.

https://www.imserso.es/imserso_01/prestaciones_y_subvenciones/subvenciones/index.htm

Neotec

Neotec enpresaren helburua oinarri teknologikoko sortzen eta finkatzen laguntzea da. Horregatik, Neotec-en laguntza produktu teknologiko bat salgai jartzeko helburu duten enpresa txikiei zuzenduta dago. Laguntza hauek Euro-funding laguntzen barruan dago sartuta, 20 urte daramatzala enpresa berriei laguntzen.

Enpresek, laguntzak lortzeko, **negozio-estrategia teknologian oinarritu** beharko dute, eta, baldintzak betez gero, **250.000 €** eskuratu ahal izango dituzte.

<https://www.cdti.es/index.asp?MP=4&MS=0&MN=1&textobuscado=programa+neotec&tip o=1&TR=A&IDR=38&tipoO=Contenido&id=1811&xtmc=programa neotec&xtcr=1>

Bestalde, aztertu beharreko beste gai bat izango genituzkeen diru-sarrerak eta irabaziak dira. Hauek aterako ditugu gure produktu salduz, noski. Baina **nola salduko genuke? Zein prezioetan?**

Prezioari dagokionez, **65€-koa** da. Hala ere, hau prezio **oinarria** bakarrik da, gure helburuetako bat etekin ekonomikoa izanagatik ere, beste helburu nagusi bat bada ere **edozein agurarentzat eskuragarri egotea**. Honengatik, **hainbat tarifa desberdin jarriko ditugu erretiro-pentsioetara egokitzeko** (gehienetan errenta ohikoak baino baxuagoak baitira). Prezio hori jarraituz, hurrengo hilabeteen ekoizpena amortizatu ahal izango dugu 306 unitate salduz.

Ateratako etekina gehiago ekoizteko inbertituko dugu, horrela, gure enpresa handiagoa bihurtzen den heinean ez delako beharrezkoa izango diru-laguntzen mende egotea.

ELKARTEEN IZENA	DIRU-LAGUNTZA	GUZTIZKO GASTUAK HILABETERO
<u>Bizkaiko Foru Aldundia: Enpresa-proiektu berritzaileen garapena</u> (Oso lagungarria izango zen enpresarekin hasteko, baina beste diru-laguntzak beharko genituzke ekoizpena mantendu ahal izateko)	40.000€-ko maximoa eskaini	(1) 28.518,6128€ (2) 19.013,5528€
<u>Imserso: Adinekoen arretaren arloan ematen dituen diru-laguntzen erregimen orokorraren mendeko diru-laguntzak</u>	170.000€-ko maximoa eskaini	(1) 28.518,6128€ (2) 19.013,5528€
<u>Neotec</u>	250.000€-ko maximoa eskaini	(1) 28.518,6128€ (2) 19.013,5528€

(1)= LEHENENGO HILABETEAN.

(2)= HURRENGO HILABETEETAN (ekoizpenaren hazkundera kontuan hartu barik).